



BITTOR TREBIÑO

Autobusa “klik”

Kanpai hotsarekin batera pankarta eskuartean dutela plazara hurbiltzen hasten dira plataformako kideak, atzetik herritar multzoa kokatzen Vdelarik. Minutu batzuetara, “klik”, argazkilari baten flaxetik ateratako argazkia irailean artxibatutakoaren kopia dela ikus liteke. “Klik”, beste argazki batean herritarren ezjakintasun aurpegia lehenagoko argazki batean ikusitakoa dirudi. “Klik”, hirugarren batean, herritar batek beste bati, zergatik, galdetzen ari zaion keinuaren irudia ere beste behin ikusitakoaren antza haundia duela antzematen baita. “klik”, “klik”, “klik”.

Lanbide itxurosoa, nola ez, argazkilariarena. Albistea non sortzen den, hara hurbilduz, errealitate hori jasotzeko prest egotea eskertzekoa da.

Kontua, bestalde, behin eta berriz errepikatzen diren argazkiekin zer egin behar den erabakitzean baitago. Argazkiez haratago plataformako lan esker ga legoke. Herritarrengana heltzen saiatze horretan informazioa ematea dute helburu. Herritarrengatik hurbiltasuna nabaritzeko, konponbidearen bidea errezagoa izango delakoan hizkuntza zaintzen dute.

ARGAZKIEZ HARATAGO PLATAFORMAKOEN LAN ESKERGA LEGOKE

Irekitasun horretan, mezua zabaltzerakoan erabilitako hitzetan, batek arreta deitzen du, proaktibo hitzak, hain zuzen.

Lan proaktiboak besteekin lana egin behar dela esan nahi baldin badu, norberaren iritziaz gain, besteenak kontuan hartzea dakar. Zer esaten dute agintean daudenek? Plazan irakurritako idatzian gizarte aurrerakoi bati atxikitu behar gatzazkiola aipatzen zen, modernitatea autobus bitzitu duin batetik etorriko bailitzan.

Abiaduran bizitzeko gizartea eskeini nahi digute, zenbat eta azkarrago orduan eta hobeto. Abiaduran nahi dugu toki batetik bestera joan, toki guztietara iritsiko garelakoan. Bitartean, Sorluzetik Mendaroko ospitalera joateko orduak itxaron behar autobusaren zai. Hau kontraesana.

Bost hilabete pasa dira eskaerekin hasi ginenetik. Ez al dago erantzunkizunik inori eskatzerik? Diputaziora joatearen aipamena egin zen plazan, agintariak hurbilgotik argazkia atera dezaten. Bitartean, Donostiara joan behar badugu, azken kontzentrazioan abestutako abestia errepika dezagun; autobusa, lara, lara, laralala.....



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarteak
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluz
Telefona 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Arianne Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

Publizitatea: Ane Larreategi

Logotipoa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Diseinua eta maketazioa: KOH diseinu grafikoa

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ERREPORTAIA

Txurruka Jatetxeak zabalik dagoela 35 urte egingo ditu aurten. Babak eta bildotsa ematen hasi eta sukaldaritza modernoarekin uzartu dute tradizioa. Begoña, Maria Jesus eta Jurdanak eman digute urteotako jardunaren berri.

Zorion agurrak



Marta Ayora

Otsailan 15ian

16 urte

Zorionak prexioxa!

Zure familiaren partez
muxu asko!



Jon Lamariano

Otsailan 17xan

19 urte

Zorionak!

Urte askotarako eta muxu
haundi bat, etxekuen partez.



Ane Aizpurua

Otsailan 27xan

8 urte

Zorionak politt hori!

Muxu haundi bat etxekuen
partez



Marina Gil

Lorea Azkona

Otsailan 13an, 4 urte

urtarrilan 29xan, 2 urte

Zorionak!

Zuen familixian partetik

Koldo Etxaniz

Otsailan 28xan

8 urte

Zorionak eta muxu

haundixa.

Margari

Otsailan 27an

Zorionak eta muxu haundi

bat danon partetik



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ikastaroak

• Boluntario lanari buruzkoa

Hezkide Eskola (Donostia). Boluntario lanari buruzko oinarriko ikastaroa. 20 ordukoa.

Otsaileko azken eta martxoko lehen bi zapatu goizetan.

Epea: 2007-02-16

Tel.: 943 311474

emaila: hezkide@euskalnet.net

Lehiaketak

• Jazz mintegirako kartelak

Zarauzko Udala. 2007ko Zarauzko VIII. Jazz mintegirako kartelen lehiaketa. Egile bakoitzak lan bat

Saria: 1.200 euro.

Epea: : 2007-02-15

Tfnoa: 943 005119

emaila: info@jazzarautz.com

• Piropo lehiaketa

Urtxintxa Eskola eta Ttakun Elkarte. Gazteei zuzendutako Piropo lehiaketa. 18 urtera arte. Sari asko.

Epea: : 2007-02-26

www.urtxintxa.net

Gutunak

Askatasunari buruz

Paraplegiko batek bere lagun bati esan omen zion:

- Oinez egin ahalko banu, aske izango nintzateke (txoriak bezala).

Eta bere lagunak erantzun omen zion:

- Zuhaitzak ezin daitezke mugitu, baina esan didatenez haiek ez lukete beraien askatasuna txorien askatasunarengatik aldatuko.

Gabriel Galan

PIL-PILEAN Euskara Elkartean

BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

GAI ZERRENDA

- 1- 2006ko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2- 2007ko egitasmoa eta aurrekontua
- 3- Galdera-erantzunak

Eguna: Martxoaren 3an, zapatua

Ordua: 11:00etan

Tokia: Kiroldegiko erakusketa gelan

Pil-pilean Euskara Elkarteko bazkide guztiok zaudete gonbidatuta.

Ondoren Goiko-Lastola sagardotegira irteera izango da.



IRAGARKIAK

• Egurrezko kutxa salgai

Haritz egurrez egindako kutxa salgai. Euskal tailaduna.

Neurria: 90x60x1,95

Tel.: 618854667

• Soziedadeak eta tabernak garbitzeko emakumea prest. Asteburuan eta asteburuan.

Tel: 636555246

Hildakoak

- CATALINA DEL PALACIO MOTREL
- PEDRO ORBEA ARRIZABALAGA
- ELIAS DE COS DE COS

Zer irizten dotsazu?

Laister hasiko dira Saciako babes ofizialeko etxeak eraikitzen. Beste asko egiten dihardute herriko kaleetan. Badago okupazioaren alde egin eta horrela bizi direnak ere.

Etxebizitza lortzeko erosi, alokatu edo okupatu egingo zenduke?



Asier Elizburu

17 urte
ikaslia

Gauzia zela dagan ikusitta, alokatzia hobe. Izan be erostia baino merkiagua da. Baina hala be, orokorrian, arlo honetan gaztiok gero eta aukera gutxiago dakagu.



Camilo Gonzalez

64 urte
jubilatua

Beste baten etxia okupatzia... egundoko arpegixa eukitzia iruditzen jata. Nik erosi egingo neuke, baina ez da bape erreza, batez be gaztientzat.



Ione Oregi

17 urte
ikaslia

Nahi erostia, baina ezin. Hainbeste etxe egin eta zetarako? Urrun geratzen dira gure eskubidiak. Gurasuekin biziko nintzake bota arte, independentzia galdu arren.



Olatz Garro

34 urte
autonomoa


Ba alokatu nik uste. Hala be oso aukera gutxi dare eta inmobiliariaren espekulazina ikusitta... Plaentzia inguruko herrixak baino zeoze merkiagua da.



Imanol Rodriguez

16 urte
ikaslia

Dirua eukitta erosi, baina bestela alokatu egingo neuke. Nahiz eta denbora luzerako izanda, igual, garesti-xagua urten.



Txaro Lete

49 urte
langilia

Nahikua diru euki ezkeru, erosi. Betiko zeuria izango litzake, baina bizi guztia pagatzen egon bihar da zoritxarrez...

BELARRAK

Loradenda
eta belardenda

San Balentin
egunerako
eskaerak egiteko:
Tel. 943 75 30 11



Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Sorluze
GIPUZKOA

3. kontzentrazio jendetsua autobusak eskatzeko

Otsailaren 2an 100 bat herritar batu ziren Plaza Barrixan autobus zerbitzu duina eskatzeko, Soraluzeko Garraio Publikoaren Aldeko Plataformak deituta. Dagoeneko 3. kontzentrazioa izan da. Protestak hasi zirenetik 5 hilabete igaro badira ere,

ez da aldaketarik izan autobus ordutegietan. Erakunde publikoek negoziaketekin jarraitzen dute. Plataformak adierazi du ekintza gehiago antolatuko dituela; Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean kontzentrazioa egiteko asmoa daukate.



Zaharren Egoitzan hasi dira obretan

Erresidentzian zaharberritze lanetan hasi zirenetik bi aste igaro dira. Monjen aldea moldatuko dute lehenengo. Legedia- ren arabera egokiak ez diren altzariak kendu dituzte eta ormak eta egiturak apurtzen ari dira, bakarkako gela handiagoak egin eta komunak behar bezala ipintzeko.

Kzguneko ikastaroak

Otsailaren 6, 13, 20 eta 27an zabalik egongo da Kzgunea, 16:00etatik 20:00etara. Erabilpen libreaz gain, "Irudi digitalen tratamendua I eta II" ikastaroak eskainiko dituzte gaztelera hutsean. Lehenengo hilaren 6an eta 13an izango da 18etatik 20etara. Bigarren ikastaroa 20an eta 27an, 18etatik 20etara.


Presoen aldeko ekimenak

Otsailean zenbait ekimen antolatzen ari da Amnistiaren Aldeko Taldea, Iñaki de Juanaren eta euskal presoen egoera salatzen. Hilaren 13an, "Torturaren aurkako eguna" dela eta, kontzentrazioa egingo dute Plaza Barrixan, 7retan. Otsailaren 14an, de Juanak 100 egun greban beteko dituenek, kotxe karabana egingo dute iluntzeko 19etan. 17an, presoen aldeko herri afaria egongo da Arranoan eta 24an lehen aldiz Euskal Preso Politikoen Kolektiboak antolatutako amnistia eta autodeterminazioaren aldeko manifestaziora joateko autobusa jarriko dute.



PINU ARRA BAZTER GUZTIETAN.

Aurtengo neguan egindako epelaldiek pinu arren hazkundera eragin dute. Herriko pinudi askotan kokua dago, zetazko boltsa txuri eta gogorra, pinu arraren sorlekua. Elurrak bakar batzuk lehortu dituen arren, errepideetan pila bat ageri dira.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



Aldaketak trafikoan ur-trasbasearen lanengatik

Duela astebete hasi ziren Errabal kalean makinekin lurra zulatu eta hodiak sartzen, Eibarrera Urkulu-ko urak bideratzeko lanetan. Apirilaren 12tik aurrera, Zubi Nagusia-Errabal-Atxuri-Errekalde ingurura pasatuko dira eta horrek trafikoan aldaketak eragingo ditu: Zubi Nagusira Etxaburuetatik sartu ahal izango da; Santa Ana kaleko zirkulazioak Udaletxetik Olearanzko norantza izango du, Kalebarrenetik Gabolatz aldera bidea zabalduko dute eta Oleako zubia moztuta egongo da Errabal kaleko 1.go zenbakira arte.



Haur eskola apirilean zabalduko da



Frontoiko Ikastola Zaharrean zabalduko ditu ateak haur eskolak, datorren apirilaren 10ean. 21 haurrentzat lekua izango da: 0 - urtebete arteko 8 ume, eta 1 - 2 urteko 13 ume. Talde bakoitzak bere gela izango du, janaria berotzeko sukaldearekin eta aldalekuarekin. Erabilpen askotarako gela elkarbanatu egingo dute. Matrikulazioa laister hasiko da.

Ezker abertzalearen diagnosiaren aurkezpena

Herriko egoeraren azterketa eta diagnosis burutu ostean, Soraluze-ko Ezker Abertzaleak herrrian dau den gabezia eta beharren aurkezpena egingo du, prozesuan parte

hartu ez dutenen iritzia eta apor-tazioak jasotzeko. Otsailaren 17an, zapatua, eguerdiko 12etan Udaltxeko Areto Nagusian izango da.

Komun publikoak erabiltzeko moduan

Zubi Nagusian dauden komun publikoetan argia ipini dute eta garbi mantentzeko zerbitzua kontratatu du Udalak. Lauzpa-bost komun daude, emakume zein gizonezkoentzat. Ez dago elbarrituentzat egokituta, eskailera dezente baitaude bertara jaisteko.



Musika Eskolan lapurretan

Urtarrilaren 23 eta 24 bitartean lapurretan egin zuten Musika Eskolan. Geletako giltzak, eskolako materiala eta instrumentu batzuk lapurtu zituzten. Ateetako zerrailak aldatu ostean, Udaltzainei abisatu zieten eta astebetera instrumentuak berreskuratu zituzten. Berrito horrelakorik ez gertatzea espero dutela adierazi digute.

Etxebizitzen inguruko kontzentrazioa

Elkartzen taldeak kontzentrazio zaratatsura joateko deialdia egin du, "Etxe hutsak alokairuan!" lemapean. Otsailaren 10ean, zapatuan, eguerdiko 12:30etan Plaza Barrixan izango da.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



Errekalde 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Txurrukara joan eta sukalderraino sartu gara. Mahaiaren bueltan amama, ama eta alaba; Begoña, Maria Jesus eta Jurdana, gainontzekoen ordezkari. 35 urtean goitik behera aldatu dute jatetxea: komedore bikoitza eta karta eskaintza bikoitza. Lana ere neurri berean hazi zaiela diote. Lanerako gogorik ez zaie falta.



Txurruka jatetxea, 35 urtean mahai prest

Zela akordatu jatzuen bazkaixak emote hori?

Jurdana: Basarrixak ez zeban emoten.

Begoña: Kalera astuekin juan eta astuekin etorri ezebez.

J. Goiko komedorian hasi zan. Hau saltaixa zan lehen.

B. Bai, lehenengo ermittan hasi ginan, bokadilluak eta hola. Gero goixan ekin ginan bazkaixak emoten. Lehenengo babak eta, enkar-gura. Eta gero bildotsa. Bildotsa asko erre dogu.

Zenbat jatetxe zeren sasoi hartan Plazentzian?

B. Lehenengo Edurtza hasi zan. Ordurako igual Gilanekuak lagata egongo ziran. Ezozki eta Armendi eta...

Zeintzuk ibiltzen zinien lanian?

J. Felix eta Benita izan ziran zabaldu zebenak, eta Iñaki eta Begoña.

B. Laurok. Idoia eta Maria Jesus, neska koxkortu ziranian. Teresak eta nere ahiztiak be laguntzen zoskuen... Danak familixakuak. Kanpoko lehenengua izan zan Nerea, 20 urte doia. Eta bere ahiztia asteburuetan.

Zeintzuk etortzen ziran bazkaltzera?

B. Lehenengo hemen gehixen-

gehixena GOLEkua.

J. Dana Plazentziako jendia.

MariaJesus: Plazentziako famili-xak gehixenbat. Oin kanpoko jendia asko, Eibar eta Bergara. Kanpokua urtietan hartzen dozu-na da, 35 urte ez dira bi urte be.

Lehenago ze jaten zan?

J. Babak eta bildotsa burduntzixan izan da beti hemen.

B. Lehen txuletia eta bildotsa, gurian bildotsa hamar eta batera erretzen ziran. Legatz prejidua be beti saldu dogu ondo.

Jaixetan eta ze giro egoten zan?

Jurdana: " Babak eta bildotsa burduntzixan izan da beti hemen "

B. Lehen jai polittak egotten ziran. Soinujoliak eta bertsolarixak. Horixe izaten zan.

J. Hemen gutxi gara, eta jende gazterik ez dago auzo honetan. Gainera hustu egin da. Jaixak galdu egin dira ziharo.

M.J. Soziedadekuak be gehixenak nagusixak...

B. Gainera aurten dira 50 urte ermittia egin zala. Auzokuen artian egin genduan.

Fedia zekazuen orduan.

B. Ya lo creo, fedia.

Eta zelebratu bihar doze?

B. Zeoze bai, San Inazio egunian.

Andrak gehixena hemen. Igual hala tokatu dalako?

J. Etxe honetan danak andrak jaixo dira, gure ama eta tia, eta Ikerne eta ni. Mutilik ez da jaixo oindiokan. Bestela danok berdin egitten dogu sukaldian.

M.J. Gure aittak, tio Felixek, nere gizonak, okeliakin, fregaua egitten, txapia garbitzen...danian.

J. Komedorera ez da sekula gizonik sartu, zerbitzera ez da animatu inor bez.

M.J. Premiñarik ez. Beti egon dira neska gaztiak eta!

Silvio kubanua sartzen zan batzuetan komedorera...

J. Haura zan bakarra zerbitzera sartu nahi zebana. Baina dan parlantxinakin, hari ezin jakon laga! Diferentia da hori!

M.J. Haura gustora. Baina barriketan hasi eta akabo haren zerbitziak.

Komedoreko girua zela aldatu da urtiekin?

M.J. Gurian gazte jendia asko ibiltzen da.

J. Lehen jende nagusixa gehixago. Gabetan be jende gutxiago ibil-

tzen zan, eta oin topera egoten da.
M.J. Alkoholemiakin be aldatu da.
J. Autobusian, taxixan... gero eta jende gehixago. Juan zan ostiralian Eibarko 8 etorri ziran minibusian. Eta igartzen da kopa gutxiago edaten dala. Eta lehen eskillarapeko ardua eraten zan, oin ez, danak krianza.

M.J. Menuan be ura. Eta kafia bakarrik. Lehen kafe konpletua zan.

J. Egon zan epoka bat estaziñuan alkolemia ipintzen zebe zurrumurrua. Oin dala bi urteko gauzia. Plazentziako jendia! Kotxe bat bajatu eta alkolemia ete zeguan diharka!

Kanpotarrak etortzen dira?

J. Hona etortzeko jakin egin bihar dozu. Etorri izan dira enpresetatik eta, baina turistik, galdutakoren bat ez bada...

B. Los de la corbata amarilla, 27 urte daroie etortzen urtero-urtero. Unibersidadian Bilbon Deuston estudixatzen eibartarrak, eta Plazentziako Barrenetxea.

J. Horrek hasi ziranian, super gaztiak ziran eta orduan egitten zebe babajana. Gero diru gehixago zekanian, bildots jana. Eta oin ia, kartara.

M.J. Etortzen ziran seiscientosekin, dos caballosekin... zahar-zaharrak ziran. Hor geratu ziran behin edurragaittik kotxia lagata bidian, ezin bajatuta.

Edurrakin zela moldatzen zarie?

B. Askotan eruan dogu jana be kalera.

J. Nere bataian be bai.

M.J. Lehenengo hau bautizatu,

Begoña: "Edurrakin askotan eruan dogu jana be kalera"

Gabolatzen laga, bota haundixak jantzi eta jana partizera sozieda-dietara.

Zeri emoten dotsazue garrantzia platerak gertatzeruzkuan?

M.J. Hemen gertatzen dogun dana etxian egindakua da.

J. Hobe da kalidadia emotia konjelagua baino.

J. Adibidez, lehen "foie" erosi egitten giñuan, eta oin etxian egitten dogu. Postriak be bai...

B. Ahal dan eta gehixen natural.

J. Horrek daukana da ordu gehixago sartu bihar dittuzula sukaldian baina produktua merkiagua urtetzen jatzu. Hori egitten dogu danak etxequak garalako.

Maria Jesus: "Hemen gertatzen dogun dana etxian egindakua da"

Ze berrikuntza eta aldaketa egin bihar izan dozuez legez?

B. Gaur oso zaila jarri da taberna asuntuan.

J. Sanidadiak ez dotsu etxeko ezer eukitzen lagatzen, basarriko esnia bez. Etortzen diran bakoitzian etaratzen dotsuez hamar fallo.

Sukaldaritza ikasketak ze ekarri dotse jatetxiari?

M.J. Oin ekin gara sukaldaritza barrixakin, jefa barrixakin...

J. Karta sinplia egon da beti, betikua, eta ni jua naiz sartzen ensalada epelak, esparrago errebozatuak, pipar betiak... Baina lehen-go platerak be segitzen dabe.

J. Lasanian praktikak egitten egon nintzan, Hondarribiko jate-txe batian be bai... hortxe ikasi dot gehixen.

Neguko menua:
babak eta bildotsa.
Postria gatzatua.
Udako menua:
Ensaladia eta arraina.

Ze eskatzen dau jentia gaur egunian?

M.J. Gaur egunian jentia arrainera gehixago. Eguena be izaten da...igual etorri honaino eta lekurik ez. Zain egon bihar.

J. Bizitza guztian menuan egun bakoitzian iguala egon da. Eta eguenetan, babak eta azia. Hori da gehixen ekartzen dabena.

Hainbeste urtian jarduteko zein da sekretua?

J. Lanerako gogua euki. Gu beti ohittu gara honetara, ikastolan gendenian be bai.

B. Hamen ez dago orduakin, zortzi ordu egin dittut eta kalera? Ez.

M.J. Lehen asko lasaixago egoten ginan. Oin halako karta haundi honekin.

B. Aste guztian jua bihar dozu lana egitten.



Begoña eta Iñaki goiko komedorean

"JENDE ASKO GERATU DA TXURRUKAN"

M.J. Fraillia, monja... asko lehen lotan. Ermittia hemen egotera. Plazentziara etortzen zan abadia, gurera. Don Luis Eguren. Lazkao txikik Txurrukako anekdotia kontatzen dau bere liburuan, San Inazixuetan zenbat jende juntatzen ginan, famelixia, bertsolarixak, abadiak... batzuk zapaixan, bestiak ganbaran. Bariantia egin zanian be, Oartzunguak 5-6 egoten ziran, astia pasatzen zebe. Gurian bizi izan da, Sebastian soinuajolia, Lonbide famosua. Haura urtietan egon zan. Zan artistia...

kultura Aratusteetako agenda

* Otsailak 14, Eguaztena

17etan: Aratosteetako ipuinak Li-burutegian Maite Francoren eskutik. (5-9 urtekoentzat)

* Otsailak 17, Zapatua

12etan: Kalejira BURUHANDI eta TRIKITILARIEKIN (Musika Eskola).

18:30etan: Haurrentzako dantzaldia Plaza Zaharrean, Auskalo taldearekin.

22:30etan: Aratosteetako Roc-Pop jaialdia, Musika Eskolako ikasle-en eskutik.

22:30etan: Sok eta Sei urte. Kontzertua Gaztetzean.

* Otsailak 19, Astelehena

17etatik 20etara: Aratusteak ludotekan.

* Otsailak 20, Martitzena

11etan: Haurrentzako jolasak kiroldegian (Institutoko ikasleek antolatuta)

17etan: Mozorro Lehiaketa Plaza Zaharrean.

18etan: Txokolatada Plaza Zaharrean

19etan: Galtzagorri Txarangarekin kalejira

19etatik 20:30etara eta 22etatik

24:30etara: Dantzaldia Plaza Zaharrean LAIOTZ taldearekin. Gaueko 11ak aldera, MOZORRO LEHIAKETA helduentzat.

(Mozorro lehiaketetako partehartzaileek CDak ekarri behar dituzte. Izen-ematea udaletxean.)

Galtzagorriak eta Gaztetzeko zirkoa Bergaran

Begarako Udalak kontratatuta, Galtzagorri txarangak aratusteetan joko du, Gaztetzeko zirkoa lagun. Zapatu iluntzean egingo dute saioa mozorro-tuta, 20etatik 23ak bitartera. Kalejirak, Rock and rollak eta estilo askotako kantuek eskainiko dituzte, malabare eta hankapaloekin. Martitzenean Soraluze arituko dira. Abenduan Galtzagorri Txarangak Durangoko Azokan jo zuen, bertako

eta nazioarteko zenbait dantza talderen kalejira gidatu eta animatuz.



Bufoi ikastaroa

Otsailaren 24 eta 25erako bufoi ikastaroa antolatu du Soraluzeko antzerki taldeak, Eibar-ko Kili-Kolo lokalean (Amañako dorreetan). Oscar Alvarezen eskutik, antzerkia jolasaren bidez landuko da. Eszenatokian plazerra lortu, eta publikoaren konplizitatea eta norberaren humanitatera nola hurbildu ikasiko dute. Izena emateko: 680297007/645732391



Asteburuko agenda

Otsailaren 9an The lost souls eta Foxi Boxxi taldeen kontzertua izango da gaztetzean, 22:30etan. Domekan umeentzako zinea kapillan 5etan, "Harry Potter eta suzko kaliza"



Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

ARRANO
tabernia

Telefona 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



**HNOS. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Gaztetxoentzako gune berria

Aspalditik eskatu dute herriko hainbat gazte eta gurasok, batez ere 12-16 urte bitarteko gazteentzat aisialdi eskaintza edo gune bat. Eskaera horri erantzun bat eman nahian Udalak asteburutarako "gazteleku" bat zabaltzea erabaki du. Asteburu honetan jarriko da zerbitzua martxan, Kiroldegiko "hall"-ean.



Hall-ean ping-ponga eta futbolina egongo dira



12 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat izango da

Keixeta Guraso Elkartearen (Institutuko ikasleen gurasoak) eta Udaleko Kultura eta Gaztedia eta Hezkuntza Sailen arteko elkarlanari esker, Kiroldegiko Kultur gunea Gazteleku bihurtuko da asteburuetan. Gaztetxoentzat gune bat egokituko dute zapatu eta domeka iluntzetan "aterpea izan eta jolasean, hizketan..." jardun dezaten.

"Sartzeko bazkide txartela beharrezkoa da"

Liburutegiko hallean pin-pong mahai bat eta futbolin bi jarriko

dituzte, eta erakusketa gelan mahaiak, sofak, aldizkariak, mahai jolasak... 12urtetik 16 urtera bitarteko ikasleentzat izango da, eta aurrez bazkide txartela atera beharko dute sartzeko aukera izateko. Bertaratu nahi duenari baldintza batzuk jarri dizkiote: "bertan behar den moduan egon, lokala garbi mantendu eta altzari eta trasteak zaintzea". Begirale bat ere izango da bertan, lokala zaindu eta haien jarduna kontrolatzeko.

Zapatuetan 16:00etik 20:00etara eta domeketan 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Otsailaren 10ean hasi eta lau hilabetez jarraituko du irekita Gaz-

telekuak maiatzera bitartean. Elkarrizketatu ditugun derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleek esan digutenez "gogoz" hartu

**"Zapatuetan
16:00etatik 20:00etara
eta domeketan
17:00etatik 20:00etara"**

dute ideia, nahiz eta ez daukaten oso garbi zer aurkituko duten. Bartzuek atera dute dagoeneko euren bazkide txartela eta astebukaera honetan bertara joateko asmoa dutela azaldu digute.

IRATXO GOXOTEGIA

**EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

**ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20**

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Laskurainek beste lau urterako sinatu du Asperekin

Aritz Laskurain pilotariak beste lau urtez luzatuko du Asperekin duen kontratua. Berez maiatzera arte zue-
nak 2.011 urtera arte iraungo du. Bi-
nakako txapelketan Lasa III.a or-
dezkatu du. Zapatuan jokatu zuen
Titinekin batera Idiazabalena, Lasa

gripeak jota zegoen eta. Kritikak
dioenez, Laskurainek ondo jokatu
bazuen ere, Titinek pilota asko gal-
du zituen eta Olaizola I eta Belo-
kik 22 eta 13 irabazi zieten. Aritz
gustora dago, bere mailari eutsi eta
jokatzeko aukera izan duelako.



Unai Soraluze, Parisko judoko torneoan

Joan zen asteburuan Parisera jo-
an eta Bondy Torneoan 3. postua
lortu zuen Unai Soraluzek. Pisu
astunen mailan (86 kg.tik gora-
koetan) aritu zen gerriko marroia
jantzita. Openean, 12. lekuan ge-
ratu zen. Unai Eibarko Kalamua
taldean dabil azken urteetan.



Soraluze saria otsailaren 25ean

Txirringularitzako Soraluze Saria
hilaren 25ean, domekan, ospatuko
da. Gipuzkoako afizionatuen den-
boraldiko lehenengo proba izango
da, 23 urtetik beherakoentzat. Ho-

rrek partaidetza handia erakartzen
du; joan zen urtean 129 txirringu-
larik hartu zuten parte. Obrak dire-
la eta, ibilbidea aldatu egin behar
izan dute.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Urtarrilan 26tik otsailaren 7ra

| | |
|---|----------|
| • Titin - Laskurain Olaizola I - Beloki | 13 22 |
| • Erroizenea - Jauregi Baez - Garmendia | 19 22 |
| • Erroizenea - Jauregi Gernikako bikotea | 22 18 |
| • Atxotegi - Loiola Uriarte - Oion | 22 12 |
| • Atxotegi - Loiola Arrieta - Artetxe | 22 11 |

FUTBOLA

- Ekintza 6 - Sora (Jub.)
- Sora 3 - Bergara 1 (Kad.)

Erregionala igoera fasean dago baina
orain deskantzua tokatzen zaio.

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 10, 16:00etan, Ezozin
• Sora - Allerru (jub.)

Zapatua 10, 15:30etan, Aretxabaletan
• Aretxabaleta - Sora

ESKU PILOTA

Astelehena 12, Tolosan
• Capellan - Barriola
Chafee - Laskurain

Zapatua 10, 16:00etan, Añorgan
• Erroizenea - Jauregi
• Gasteizko bikotea

- Atxotegi - Loiola
- Amundarain - Eizagirre

Domeka 11, La Puebla de la Barcan
• Jauregik Arabako Openean
jokatuko du



Diseinua eta Sormera

Polígono Amillage, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



San Blas eta Santa Agedako argazki eta koplak



*San Blas egunez Kapilla bete
amama, ume ta opil,
gripian kontra bedeinkatuta
jendia umorez dabil.*



*Basarri batetikan bestera
kopa, trikiti, pandero,
limosnatxua jasoko zeben
ondo kunplidu ezker.*



*Eztarriz sano dabil korua
txistu ta danborra lagun
Santa Agedagatik eztarria
Urratu artian jardun.*



*Musika Eskolak erakutsi dau
dakala sobran indarra,
herrixak eta ohittura zaharrak
badake bere biharra.*



Juan Mari
Arraindegia

*Eguneroko
arraina
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza
20590 Soralueze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



kutxa

gizarte ekintza

Argazki zaharra



Iturria: Loli Nieves

Lehenengo Begildarrak

Begildarren artian, Plazentziara lehenengo etorri zana Nicomedes Begil izan zan, Cuencako Lapesquera herrikua. "Makinistia" gaitzizena hartu zeban. Bere seme, errain eta loibak dira argazkikuak. 1915ian Santa Ana kaleko 13.zenbakixan, denda zaharra zeguan lekuan, Begil-Berraondo familixiari etaratakua da.

Ezkerretik eskumara: *Rufino, Pura, Pilar, Aureliano, Policarpo eta Rosario Begil Berraondo. Gurasoak Candido Begil eta Antonia Berraondo.*

Lehiaketa

Plaza Zaharrari...

Aurreko aleko erantzuna

Plaza de Navarra ipini zotsen izena gerra denporan, berezkua Plaza Zaharra bazan be. Izenak esaten daben moduan, herriko plazarik zaharrena da, bere laugune, iturri eta arbolapiarekin. 1933an galipotez tapatu zeben lurra, adokiñez egindakua. Bertan egitten zittuzten idi probak, eta bestelako herri kirolak be. XVIII. mendian zezenak izaten ziran Plaza Zaharran.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Ze kaleri esaten jakon Kalegoen?

- Santa Ana
- Zeleta
- Ezoiko Bidia

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



SARIA



Fisioterapia saio bat Gogortuz zentroan

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
Kontxi Loiti

SARIA
Fisioterapia saio bat Ormazabal zentroan



ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 17an hil zen Bilbon 90 urte zituela

CANDIDA AGIRRE ZALDUNBIDE

Goian bego

